ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko azaroaren 23a, asteazkena • 134 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 15ekoa ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

— **Erabakiak:**

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 681/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onestea "+8 txekeak" bonu programaren 2022ko bigarren deialdia, 5.000 bizilagun baino gutxiago dituzten Arabako herriguneetan eta landa zonetako negozio eta zerbitzu profesionaletan zuzeneko kontsumoa sustatzekoa.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 682/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Ezespena ematea Kontseiluaren maiatzaren 24ko 289/2022 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoari (243/2022-10113).

Foru Gobernu Kontseiluaren 683/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Ezespena ematea Kontsei luaren maiatzaren 24ko 289/2022 Erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoari (243/2022-10113-1).

Foru Gobernu Kontseiluaren 684/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea zenbait enpresari adjudikatzeari moldiztegiko material bereziak hornitzen dituzten enpresak homologatzeko esparru akordioa, 433.258,29 euroko gehieneko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta 2024ko abenduaren 31ra arteko gauzatze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 685/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea Repsol Comercial de Productos Petrolíferos SA enpresari adjudikatzeari Arabako Foru Aldundiaren eta atxikitako gainerako erakundeen instalazioak berokuntzako C gasolioz hornitzeko esparru akordioa.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 686/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta, kreditu transferentziaren zenbait espedienteri, funtsez hornitzeko "Errepideen kontserbazioa", "Egokitzapena: A-625 Saratxo. AKK" eta "Bide Segurtasuna eta seinaleak hobetzea. AKK" partidak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 687/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea Amurrion Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdearen zati izango diren lursailak erosteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 688/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea lokal baten alokairua zuzenean kontratatzeari, autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonentzako eguneko zentro gisa erabiltzeko, deialdiko lizitazio publikoa esleitu gabe geratu delako.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 689/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onestea Kontseiluaren urriaren 26ko 50/2021 Foru Dekretuaren bidez deitutako dirulaguntzen lerroaren bigarren emakida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 690/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onestea Arabako toki erakundeen kudeaketa esleipena formalizatzeko hitzarmen eredua, enplegu publikoa egonkortzeko prozesuetan langileen hautaketa kudeatzeko.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 691/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onestea 2022-2023 kanpainako neguko bidezaintzarako programa eragilea.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 692/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea ebazteari abeltzaintzako laguntzen 2022rako deialdia, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 12ko 237/2022 Erabakiaren bidez onetsia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 693/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea luzatzeari Igairako A-4339 errepidetik San Migel herrira joateko landa bidea konpontzeko obren egikaritzea justifikatzeko epea.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 694/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea handitzeari Arabako Kirol Federazioen Elkarteari 2022. urtean Mendizorrotzan lagatako espazioetako gastuak finantzatzeko eman beharreko dirulaguntza.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 695/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onestea Arabako hondakin uren araztegiak ustiatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzua kontratatzeko Kontseiluaren azaroaren 8ko 678/2022 Erabakiaren bidez onetsitako ezaugarrien taularen aldaketa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 696/2022 Erabakia, azaroaren 15ekoa. Onespena ematea URBIDE Arabako Uren Partzuergoarekin, Gazteriaren Foru Erakundearekin, Araba Garapen Agentzia SArekin eta Bernedo, Kanpezu eta Izarrako administrazio batzarrekin hondakin uren araztegiak batera ustiatzeko lankidetzan aritzeko hitzarmenaren ereduari.



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.11.23 06:24:54 Z